



HERRITARREN LANA 'HERRIA KANTUAN' SAIOAN

Alegiako Kultur Etxean izango da emanaldia, 22:00etatik aurrera; musika ardatz, dantza eta antzerkia ere izango dira 5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-06-05**

VIURTEA 1.452.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Lekarotz, Doneztebe, Altsasu, Leitza eta Berako institutuetak 690 ikasle bildu ziren Ikasleen X. Kontzertuan. N. GARZIA

NAFARROA IPARRALDEKO INSTITUTUEN FESTA


LEITZA Nafarroa Iparraldeko institutuen festa eguna Leitzaan ospatu zuten atzo; ikasleek kontzertua eskaini zuten Amazabalen 7

Duela 20 urte Groenlandiara eginiko bidaia gogoratuko dute gaur, Kultur Etxean

TOLOSA Josu Iztueta, Txiki Plazas, Anjel Ortiz, Nekane Urkia eta Dina Bilbaok osatutako espedizioaren bideoa eta mahai-ingurua izango dira 3

Laskorainek bere 40 urteak liburu batean bildu ditu

TOLOSA Atzo aurkeztu zuten Leidorren 'Urtez urte biziz bete' lana, jende ugariaren aurrean 4



Aurkezpen hunkigarria egin zuten atzo Leidorren. I. TERRADILLOS

**DISEINU GRAFIKO eta sormenean
oinarritutako heziketa**

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak



ceinpro

TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es
INFORMAZIOA 943 310 873

Herriz Pasealekua 98 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 510 876

Kultur ekitaldi ugari gozatzeko aukera izango da ekainean Tolosan

Kultura » Musika kontzertuak eta San Joan jaiak izango dira hilabete honetan azpimarratzeko ekitaldiak.

ERREDAKZIOA

Udako oporraldiaren aurretik ekainean kultur eskaintza oparoz gozatzeko aukera izango dugu, musika emanaldiak nagusitzen direlarik. Festa giroan sartzeko ere egun gutxi geratzen dira, izan ere, San Joan jaiak ere hilabete honetan dira, egitarau oparoz izango dute aurten ere. Beraz, bete beterik datorriguekaina.

Aranburu jauregia

■ **Jose Mari Gorrotxategi 55 urte argazkitan.** Ekainaren 14ra arte.
■ **Kultur tailerrak.** Arte plastikoetarako lantegietako ikasleen erakusketa izango da ikusgai ekainaren 19tik uztailearen 5era arte.

Kultur Etxea

■ **Groenlandia 20 urte.** Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, ikus-entzunezkoaren proiektzioa eta mahai ingurua Josu Iztueta-ekin, gaur, 20:00etan.
■ **Uxola sarien banaketa.** Udaleko Euskara Batzordearen eskutik, hilaren 11n, 18:00etan.
■ **Odol Emaileen hileroko odol ateratzea.** Hilaren 16an, 18:00etan.
■ **Dieta osasuntsua.** Bionekazari-tza elkarteak antolatuta, hilaren 17an, 18:00etan.
■ **'La Beneficiencia' liburuen aurkezpena.** Jose Antonio Recondoren lana hilaren 19an aurkeztuko dute, 20:00etan.
■ **Jabier Muguruza.** Kontzertua izango da, hilaren 20an, 22:00etan.
■ **Sanjoanetako Xake Txapelketa.** Hilaren 22an izango da, 10:00etan.

Leidor aretoa
■ **Alasdair Fraser eta Nathalie Haas.** Mundua Tolosan zikloaren baitako kontzertua, etzi, 20:30etan.



Hilaren 21etik 24ra izango dira San Joan jaiak. Irudian, pasa den urteko Koadriren Eguneko une bat. A. IMAZ

■ **Arimaz Kamera Orkestra eta Irungo Musika Eskolako Soka Orkestra.** Hilaren 13an izango da, 20:30etan.
■ **Kultur tailerrekoen dantza emanaldia.** Hilaren 14an izango da, 18:00etan.
■ **Izaskun Arriolaren eskolako dantza jaialdia.** Hilaren 17an, 20:30etan.
■ **'Por mis muertos' antzezlan.** Tic-Tac antzerki taldea eta udal antzerki tailerreko ikaslea ariko dira. Hilaren 27an izango da, 22:30etan.
Zinema:
■ **Candilejas** (bihar).
■ **La banda del patio** (hilaren 8an).
■ **Los falsificadores** (hilaren 9an).
■ **Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal** (hilaren 13an, 14an, 15ean eta 16an).
■ **Desayuno en Pluton** (hilaren 27an, 28an eta 29an).
■ **El principe de los ladrones** (hilaren 28an eta 29an).

■ **Beautiful boxer** (hilaren 28an, 29an eta 30ean).
■ **Zine Foruma (ostegunero, 19:15ean eta 21:45ean):**
■ **La hamaca paraguaya** (hilaren 12an).
■ **Love and honor** (hilaren 19an).
■ **Honeydripper** (hilaren 26an).

Bonberenea

■ **Nlsei, The baltic sea eta Yakusi.** Taldeak ariko dira, etzi, 22:30etik aurrera.
■ **Audience eta Zein?** Taldeen kontzertua, hilaren 13an, 22:30etan.
■ **Double agents eta hotel.** Taldeak, hilaren 14an, 22:30etan.
■ **Enon.** Hilaren 18an, 22:30etan.
■ **Ataka perkusio taldea.** Hilaren 20an, 22:30etan.
■ **Bjerga / inversen Vaseline, Gora japon eta Stater flater.** Hilaren 27an, 22:30etan.
■ **Desordutan, inde kitchen eta Dj Bull.** Hilaren 28an, 22:30etan.

Besterik

■ **'Esaldi bat, esaldi bi... kontu-kontari'.** Amarozko Antzerki Astearen baitan, gaur, Amartz auzoan, 18:00etan.
■ **'Una clase con Don Abil'.** Amarozko Antzerki Astearen baitan, etzi, Amartz auzoan, 20:00etan.
■ **Aste Berdea.** Gaur hasi eta hilaren 12ra arte hainbat ekitaldi izango dira.
■ **'Cecilia G. de Guilarte, reporter de la CNT'.** Gerrako kronikak (Julen Lezamiz, Guillermo Taver-nilla). Udaletxeko batzar aretoan, hilaren 10ean, 19:30etan.
■ **San Joan jaiak.** Hilaren 21etik 24ra. Ekitaldiz beteriko egitarau berezia izango da.
■ **Sexu Askapenerako Nazioarteko Egunaren inguruko ekimenak.** Hilaren 23tik 30era, Udaleko berdintasun sailaren eskutik: *Homofobia, Lesbophobia eta Transfobiaren aurpegiak* EHGAM taldearen erakusketa Leidorren eta zine egitarau berezia asteburuan: *Beautiful Boxer* eta *Desayuno en Pluton*.
■ **Arcachoneko ur-parkera irteera.** Gazte Topaguneak antolatuta, hilaren 26an. Izena emateko epea, hilaren 22a.
■ **Tolosand blues 08.** Hilaren 26tik 28ra. *Honeydripper* (John Sayles) filma Leidor aretoan eta *The Lazy Jumpers, Little Charlie and The Nightcats* eta *Tres Mil Hombres* taldeen emanaldiak izango dira Fronton kafetegian eta Plaza Berrian.
■ **Spinning Festa.** Kilometroak 08 Irurako Ikastolak antolatuta, Zerkausan, hilaren 28an.

Isastegi sagardotegia Sagardo Lehiaketaren finalean

Gastronomia » Etzi izango da ekitaldia, Donostiako Euskal Gastronomia Elkartearen, 12:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

VII. Sagardo Lehiaketaren finala izango da etzi Donostian, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen sari hauen finalistetan artean Tolosako Isastegi sagardotegia dago beste hauekin batera: Hernaniko Altzueta eta Zelaia, Donostiako Calonge, Astigarragako Irigoien-Herrero eta Usubilgo Saizar.

Aurtengo lehiaketan orain arteko partaide kopururik handiena aurkeztu da. 35 sagardo ekizleek hartu dute parte, eta horietatik 6 aurkeztu dira lehen aldiz. Zazpigarren edizio honen berrietasuna da lehen aldiz sommelier bat izango dela finalaren epaimahaian. Etziko finala 12:00etan hasiko da eta Donostiako Euskal Gastronomia Elkartearen izango da. Lehen saria 2.500 euro eta garaikurra izango da, bigarrena 1.500 euro eta garaikurra eta hirugarrena, berriz, 750 euro eta garaikurra.

Galtzaundik antolaturiko ludoteka zerbitzurako izen-ematea

Gizartea » Uztailearen 1etik 30era izango da 3-10 urteko gaztetxoentzat; hilaren 9an hasiko da izen-ematea.

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak aurten ere ludoteka antolatuta du 3-10 urte bitarteko haurrentzat Tolosako Musika Eskolan uztailearen 1etik 30era. 09:00etatik 13:00etara izango da zerbitzua astelehenetik ostiralera, eta bertan jolasak, eskulanak, irteerak, igerilekua, ipuin kontalaria... bezalako jarduerak egin ahaliko dituzte gaztetxoek. Izena emateko epea ekainaren 9an zabalduko dute, eta hilaren 20a izango da azken eguna. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara Galtzaundiko egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6 behea) egin ahaliko da edo 943 65 50 04 telefono zenbakian. 80/130 edo 160 euro ordaindu beharko da. Igerilekuaren prezioa, berriz, 15 eurokoa izango da (igerileku bonoa dute-nek ere prezio bera).



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ Inkesta. Sartu gure webgunean eta parte hartu proposatzen ditugun inkestetan. Ondorengo esaterako: *Nork irabaziko du Buruz Buruko Pilota Txapelketaren finala? Oinatz Bengoetxea ala Abel Barriola?* Eman zure botoa, eta horretaz gain gaiaren inguruko iritzia sartzeko aukera ere ematen dizu gure webguneak. Inkesta horretaz gain beste hainbatetan parte hartzeko aukera ere baduzu, eta baita proposatzen ditugun eztabaidarako gaietan ere:

www.tolosaldekohitza.info

L Laburrak

Nafarroako mendietara irteera antolatu du Alpinok

KIROLAK ● Alpino Uzturre mendi elkarrekin igande honetarako mendi irteera bat antolatu du. Oraingo honetan Nafarroara izango da, hasiera Artetan eta bukaera berriz Huarte Arakilen. Igoko dituzten mendiak Treku (1.265 m.), Leziza (1.350 m.) eta Beriain (1.493 m.) izango dira. Txangoa 6 ordukoa da. Irteera 08:00etan izango da, Rondilla kalean. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 13. Izen emateak elkartean edo 943 652 789 telefonoz egin daitezke.

Kontu kantoiren antzerkia izango da gaur Auzo-etxean

KULTURA ● Amaroako Antzerki Asotua ari da ospatzen egun hauetan. Ekitaldien baitan, gaur, Kontu Kantoik *Esaldi bat, esaldi bi...* Kontu-kantari!!! izeneko lana eskainiko du. Emanaldia haurrei zuzenduta dago eta 18:00etan izango da, Auzo Etxean. Bestalde, etzi, Zine Klubarekin elkarlanean, film bat ikusi ahal izango da Leidor antzokian, 22:30etik aurrera. Charles Chaplin-en *Candidejas* emango dute hain zuzen ere.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-ALKIZA-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutzte Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leitzarano autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Elur leretan behar zuten material guztia hartuta zuten bost tolosarrek Groenlandia, mendebaldetik ekialdera. GALTZAUNDI

Hogei urte eta gero, Groenlandiara begira jarriko dira berriro gaur gauean

Gizartea » 1988an tolosarrek batzuek egindako espedizioaren inguruko bideo emanaldia eta mahai-ingurua izango dira.

ESTI EZEZIA

Aurten 20 urte betetzen dira Josu Iztueta, Txiki Plazas, Anjel Ortiz, Nekane Urkia eta Dina Bilbaok Groenlandiara bidaia egin zutenetik. Baina ez zen opporraldi arrunt bat izan, mendebaldetik ekialdera zeharkatu baitzuten lurraldea. Espedizio honek hogeigarren urterena ospatzeko, Galtzaundi Euskara Taldeak eta espedizioekideek bideo emanaldia eta mahai-ingurua antolatzea erabaki dute. Ekitaldia gaur iluntzean, 20:00etatik aurrera izango da, Tolosako Kultur Etxean.

Ekitaldiaren nondik norakoak

Saioa hasteko, Iñigo Urteaga ekoizleak Groenlandiako zeharkaldian hartutako irudiek ingindako bideoa eskainiko dute. Ondoren, espedizioekideek hartuko dute hitza eta Groenlandiako zeharkaldiaz hitz egingo dute. Hizlariak Txiki Plazas, Josu Iztueta eta Nekane Urkia izango dira. Moderatzailea berriz Aitor Elduainen kazetaria izango da. Mahaian ez ezik, publikoan ere espedizio horretan parte hartu zuten beste hainbat pertsona ere egongo dira. Horien artea, Ander Ortiz, espedizioa kidea eta Ramon Garate, bidaiaiko medikua.

Zergatik Groenlandia?

Tolosaldean beti egon da elur zale-tasuna eta urte askoan, abenturazelen jomuga izan dira Artikoko lurraldeak. 1984an Tolosako zen-

bait gazte Laponiara joan ziren espedizio bat egitera. Gazte talde berrari handik itzultzean, Groenlandiara, munduko irlarik handienara joatea otu zitzaion. Baina ez zen ezerezetik ateratako ideia izan, 1988an ehun urte betetzen baitziren norvegiar batek eta bere taldekideek Groenlandia lehendabiziko aldiz gurutzatu zutenetik. Hori zela eta, urteurren hori gogorarazteko asmoz bidaia prestatzen hasi ziren.

Hilabete eta erdiz, zibilizaziotik bakartuta

Hilabete eta erdi inguru behar izan zuten tolosarrek espedizioa burutzeko. Hala, apirillean abiatu ziren, neguko hotz handiena igaro ondoren. Beraiekin, elur leretan eraman zuten behar zuten guztia, ez baitzegoen erdi-biderik, geratu eta falta zitzaiena eskuratzeko. 600 kilometro egin zituzten, kostalde batetik bestera. Muga hauetan Hinuitak (eskimalak) bizi dira, baina barnealdean, inor ere ez.

Espedizioan hainbat zailtasun

gainditu behar izan zituzten, horietako bat orientazioa aurkitzea izan zen, garai haietan ez baitzegoen GPS modukorik. Bestalde, barkadada ere beraien etsaietako bat izan zen. Hala ere, bidaia oroitzen onak gordetzen dituzte eta baieztatu ahal izan zuten ametsak gauzatzea posible dela batzuetan. Gainera, asko ikasi ahal izan zuten. Hala ere, beti gertatzen den moduan, kide bakoitzarentzat zer bait ezberdina suposatu zuten.

Groenlandiako herritarren bizitza gertutik ezagutzeko aukera ere izan zuten tolosarrek. Astebete inguru egon ziren Hinuitekin, eta beraiekin harremanetan egon. Abiatu aurretik kostaldeko herri batean egon ziren, eta gaur eskainiko duten dokumentalean egun horietan gertatutakoa ere islatu nahi izan dute.

Zailtasunen aurrean ez amore ematen ikasi zuten bidaia horretan, eta baieztatu, une batetik bestera gauzak erabat oker daitezkeela, nahiz eta ongi prestatu. Bestalde, lagun talde bat batuta egotea

ezinbestekoa da muturreko egoeretan, eta harremanak sendotzeko ere balio izan zien Groenlandiara bidaia.

Hordutik hona, denek ere bidaia gehiago egin dituzte, baina espedizio talde bera ez da gehiago errepikatuko, bakoitzak bere bidea jarraitu baitu. Gainera, egun, ziurrenik ez lukete bidaia bera egingo eta egingo gero ere ez litzateke berdina izango. Teknologiarekin aurrerakuntzari esker, gauzak asko aldatu baitira.

20 urte beranduago, nahiz eta Groenlandia eta Tolosaren arteko harremana hoztu, oraindik ere mantentzen da. Horren adibide, duela 15 egun, Josu Iztueta hara joan zen, eta 1988an izandako eskolaberera joan zen. Gainera, garai hartan ezagutuko ikasleak heldu egin dira, eta horietako batzuk, bertako irakasle dira. Bestalde, tradiziozko bizitzatik, bizitza modernora igaro dira. Dena den, Josu Iztuetak esan bezala, «Groenlandia bera ikusteko nire modua aldatu da».



Groenlandia mendebaldetik ekialdera zeharkatu zuten espedizioa bost kideek. HITZA



40 urtetako bizipenak, bilduta

TOLOSA • Luze jotzen dute 40 ute. Hamaika istorio, hamaika bizipen, bizitza bat... Eta hau ospatzeko aurkezpen ekitaldi atsegini eta hunkigarri batean *Urte urte bizitza bete* liburua aurkeztu zuten atzokoan. Leidor aretoa aukeratu zuten aurkezpenaren eszenatoki bezala eta jende ugari hurbil-

du zen bertara. Liburuan, 43 belaunaldien bizipen bana bildu dute, narrazioan, olerkian, marrazkian,.... Halaber, kilometroak, abesbatza, aisialdi taldea eta nesken futbol taldearen inguruan ere badaude orrialdeak. Bizitza honen parte izan direnentzat opari ederra litzateke... I. TERRADILLOS

Fleming ikastolako ikasleen gurasoentzat emanaldia, gaur

Villabona » 16:30etik aurrera egingo dute ikuskizuna Gurea aretoan; ikastolatik guraso guztiak gonbidatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Ikasturtea amaierara heltzen ari da eta, ondorioz, Villabonako Fleming ikastolan ohikoa den gurasoentzako emanaldia antolatu dute. Hain zuzen, ikuskizuna gaur egingo dute, 16:30etik aurrera, Villabonako Gurea aretoan.

Ikastolatik guraso guztiak bertan parte hartzera gonbidatu nahi izan dituzte «emozioz beteriko arratsaldea» izango delako.

Udalak «babesa» eskaini die uholdeen ondorioz kaltetu diren herritarrei

Villabona » Halaber, Udalak «herritarren erakutsi duten elkartasuna eta laguntza» txalotu nahi izan ditu.

ERREDAKZIOA

Larunbat eta igande bitartean izan ziren uholdeen ondorioz euririk hainbat arazo sortu zituen billabonatarren artean.

Hori dela-eta Villabonako Udalak «uholdeen eraginez kaltetuak izan ziren herritarrei Udaleren babes eta laguntza osoa» eskaini nahi izan die.

Babesa eskaintzearekin batera, halaber, Maixabe Arrietak «txalotu eta eskertu» nahi ditu larunbat gauetik aurrera «hainbat herritarren elkartasun eta laguntzarako jarrera prestuak ere». Aipatu duenez, «ezbeharren aurrean elkartasuna bezalako baloreak lantzea estimuan izatekoa eta eskertzekoa baita».

Ekain beltza berriarekin

eleBERRI beltzArenkin



Utzi ezinik irakurtzeko modukoak



Lau liburu:

ekainak 7, 14, 21 eta 28



+
2,9€



OHARRA: Irteerak bakarrik artzoki eskaintza

Gutunak

Baserria SOS! Igandean denak Donostiara

Bakoitzak bakigu gauden lekuan gaudela (haragi, baratza, esne, artzantza) egunerokotasunei aurre egiteko zer komeri pila dauzkagun. Badugu garaia eta arrazoiak hamaika ta gehiago denak batu eta gure lanbidearen alde manifestazio polit bat egitekoa; kostuak entengabe ari zaizkigu igotzen, kontsumitzaileei ere bai baina guri lehengo prezioan ordaintzen digute tarteko bitartekariak negozioak egiten ari diren bitartean.

Burokrazia jasanezina, baserriaren galtzen ari garen lanpostuak, bulegoetan sortzen dira «kontrolaren» izenean egunerokotasunean bete ezin diren paper pila batekin baina produktua gure baserriatik atezean «kontrol» hori deskontrola bihurtzea.

Lurraren galera entengabea

(golf zelaiak, autopista, AHT, etxebizitza, pabelloi) azken batean guk lanerako beharra dugun lurra negozio kategorikoa dago bilakatuta eta okerrena gero eta falta gehiago sumatzen dela eta lehenago galdutako lurrek ezin go direla berreskuratu.

Nekazaritzako aurrekontuaren zati handiena milioika enpresa eta elikagai industriei ematen zaizkie eta maiz Gasteizko administratibotik diru publikoa ibiliz sektorea kontrolatu nahi da.

Arrazioak esaten segituz gero lekurik gabe geratuko naiz, eta besterik gabe baserriarrei eta baita kaleko jendeari ere animatu nahiko nieke igande honetan eguerdiko 12:00etan denak Donostiako bulebarra azaltzea!

Gizartea behar dugu baina gizarteak ere behar gaitu, animo!

Andoni Egia Arregi. Tolosa

4 sarrera pare zozketan

deitu eta eskuratu

Ekainak 7

Larunbata • 20:30ean

Tolosako Leidorren

**Alasdair Fraser
eta
Natalie Hass**



txokoa
h

HITZAren harpidunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez telefono zenbaki honetara: 943 65 56 95

Herritarren eskutik, 'Herria Kantuan' emanaldia eskainiko dute bihar

Alegia » Kultur Etxean 22:00etan izango da txartela erosi dutenentzat; musika ardatz, dantza eta antzerkia ere izango dira.

NEREA URBIZU

Bihar gauean, *Herria Kantuan* ekitaldia izango da ikusgai Alegiako Kultur eta Kirol Etxean, 22:00etatik aurrera. Herritarrek eratu eta osatu duten ordu eta erdiko emanaldi musikatu izango da, baina antzerkitxoak, dantzariak eta bertsolariak ere izango dira. Beraz, ikusten denez, denetik izango da. «Artistak hartzen ditugu hauek, eta ez denak, baina batzuk bilztea lortu dugu». Hilabete baino gehiago aritu dira prestatzen.

Emanaldi hau Alegiako Kultur Batzordeak antolatuta du eta duela bi hilabete inguru hasi ziren, ideia sortu zenetik. Helburua, Maider Jauregi kultur batzordeko kideak azalduta, «herritarrek sortutako



Txintxarri Abesbatzak ere parte hartuko du biharko emanaldian. EDU ARRAYET

zerbait egitea zen, musikarekin lotuta. Iaz *Ahots Bidaztiak* egin zutenaren antzeko zerbait da. Honetan herritarrek hartu zuten parte eta erantzun ona izan zuen ekitaldiak. Oraingoa xumea izango da, hau da; etxeko produkzioa. Elkartzeko aitzakia bat ere izan da».

Herrian dutenaz baliatuz

Oro har, musika egiteko joera handia dago herrian, tresnak jotzeko, kantatzeko... Jende asko instrumenturen bat ondo jotzeko gai da. Biharko saioan Txintxarri Abesbatza, Txintxarri Txiki, Dantzarien taldea, helduek osatutako

dantzari taldea, txalapartariak, piano-jotzaileak, gitarra jotzaileak, baxu-jotzaileak, dultzaineroak, akordeoiariak, trikitilariak... izango dira. Ez dira faltako atzoko eta gaurko txistulariak ere. «Jende desberdin asko batzea lortu dugu».

«Entsegatzeko garaian, norberaren esku utzi dugu dena; hau da, biharko osatu diren taldetxoek bere kasa entsegatu dute, Txintxarrikoek ere bere aldetik, baita bertsolariak ere». Entsegu orokorra egin zuten joan den larunbatean, baina ordena eta sartzeko eta ateratzeko argibideak emateko izan zen gehienbat.

Oltzaratuko direnak entzulegoren aurrean daudenak dira eta saioa eskainiko dutenak, baina ikustera joan diren herritarrek ere izango dute kantatzeko aukera. Bereziki bukatzeko bi kanta aukeratu dituzte, eta Antton Izuetak prestatutako Alegiako irudi zaharrik eta kantu batzuk proiektatu dituzte PowerPoint-aren bidez.

Aurkezpen lanetan

Aspaldi herritik joandako baten presentzia ere izango da Alegiako Kultur Etxean. Aurkezpen lanetan ere ariko omen da, baina hori sorpresaren zati bat da... Bertaratuko denak jakingo du ikusi bezain laster. Emanaldia berezia izango da, baina hasiera batez ere, are eta bereziago.

Antzerkia egitera 6 lagun animatu dira eta *esketch* diferentek prestatu dituzte. Parte hartuko dutenak aurkezteko baliatuko dituzte antzezlan hauek. Beraz, antzezlan txoak tartekatu egingo dituzte saio eta saioaren artean, «baina oso motzak izango dira *esketch* hauek».

Azken sarrerak salgai

Ez dira sarrera asko gelditzen saltzeko: Kultur Etxean daude erosiak 2 euroren truke. «200 lagunentzako lekua dago gutxi gorabehera, eta sarrerak bukatzen direnean, ez da jende gehiago sartzeko aukerarik izango».

Biharko emanaldian parte hartu behar dutenek azken entsegua egingo dute bihar 18:00etatik aurrera, Kultur Etxean bertan. Dena antolatuta dago, baina azkeneko detaleak ere gogoratzeko eta zaintrazeko izango da biharko entsegua hau.

Ur sarerako diru laguntza eskatuko dute

ERREDAKZIOA

Amezketako azken ohiko bilkura maiatzaren 29an egin zuten eta bertan, Amezketako edateko ura banatzeko sareen kudeaketa planak eta ur sarea hobetzeko ekintzak burutzeko diru laguntza eskara egitea erabaki dute. Jexus Ifurritak adierazi zuen, «apirilaren 3ko ebazpenaren arabera, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, honen bidez arautzen dira edateko ura banatzeko sareetara bideratutako diru laguntzak». Plana, Aralar paper fabrikatik hasi eta Luisenea parerainoko ibilbideko hobekuntzetarako izango litzateke.

Larraitz bidearen ondoko eremuko hirigintza egitasmo proiektua ere onartu zuten, denen aldeko botoekin.

Ergoneko frontoiko birmolade-

ta obraren esleipenari dagokionez, 6 enpresek erakutsi dute obra hauek bere gain hartzeko interesa eta aurrekontuak aztertu ondoren, aho batez erabaki dute Uzturpe eraikuntzak egindako proposamena aukeratzera. Enpresaren aurrekontua 159.899,91 eurokoa da.

Batzordeetako bilerak

Festa Batzordeak aurtengo herriko festak abuztuaren 22tik 26ra izango direla zehaztu du. Bestalde, udaleku irekiak 3urteko gorako entzatat antolatzeko asmoa dela ikusita, 2 urteko haurren gurasoek adierazi dute beraien aldetik interesa dagoela eta ea zerbait antolatzera posible den. Hau aztertzeotan eta ahal bada antolatzekotan gelditu dira.

Argizaiolen katalogazioa egiten hasia da lantaldea ere. «Norbaitek

parte hartu nahiko balu lan honetan eta laguntzeko prest badago, ateak zabalik dauzka».

Gizarte eta ongizate batzordea

Gizarte eta ongizate zerbitzuen batzordekoek Tolosaldea Garatzen ordezkatzen duen Jose Luis Urdangarinen bilera informatibo bat entzun ahal izan zuten, erakunde honen eginkizunak azaltzeko.

Ur kudeaketaz ere aritu ziren: Udalak hitzarmen bat itxi nahi du Gipuzkoako Urak erakundearekin honako baldintzekin: hitzarmenak bakarrak kontuan izango du Udalak gaur egun kobratzen duen sarea. Gipuzkoako Urek, 10 urtetan 500.000 euroko inbertsioetan gastatuko dituen konpromisoa hartzen du. Inbertsioak Udalak onartu beharko ditu.

Kultur Etxea Ayerbenean

Ayerbenean erosi ahal izateko harremanak izan dira Udala eta jabeen artean, eraikin hau Kultur Etxea izateko asmoarekin. Azkenik, denek aho batez onartu izan da Ayerbene 200 milioi pezetatan erostea.

Eskola inguruko aparkalekuei irtenbidea emateko arauak aztertzeko hastea proposatu zuen Kimu Berri Taldeak. Aho batez onartu zen Sasturain atzealdeko eremua eta Albergearen atzealdekoa aztertzea.

Plazako frontoiko beheko arkuak ixteko aurrekontuak eskatzen ari da Udala. Aho batez onartu zen aurrekontuak eskatzen jarraitzea, goiko arkuen itxuraren antzekoak planteatuz. Eserlekuak jartzeko ere aurrekontuak eskatzen jarraitzea adostu zen.

Bidegoianen bihar, bizitzari buruzko hitzaldia, eta ondoren afaria

ERREDAKZIOA

Bihar, Bidegoianen Udalak antolatuta, Izar Arregi psikologoaren eskutik hitzaldi bat izango da. Honetan bizitzari buruz ariko da, *Emakume edo gizonezko... bizitzari aurre egin behar* izenarekin. Osasun eta psikologia klinikoko masterra ere badu Arregik eta 17:00etatik aurrera entzun ahal izango da bere hitzaldia.

Balioitzeko gelako solasaldia- ren ondoren, 21:00etan afaria izango da Kontzeju jatetxean Udalaren kontu. Afarirako izena eman nahi dutenek jatetxera bertara dei dezakete ahalik eta azkarren 943 681003ra, hain zuzen.

Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Debagoiena	Ekaina, Asteartea 10, asteazkena 11 eta osteguna 12. 19.00etatik 21.00etara, Arrasateko Kultur Etxean.
Donostialdea	Ekaina, Asteartea 10, asteazkena 11 eta osteguna 12. 19.00etatik 21.00etara, Donostiako Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretoa.

Izena emateko: **Debu** | **Maila** | **Seta**

943 25 10 05 | partehartu@baketik.org | www.baketik.org

Laguntzaileak:

Ezker abertzalearen mozioak Tolosa eta Zizurkilgo udalbatzen bilkuran

Politika » Tolosan mozioa atzera bota zuten herenegun eta Zizurkilgen hurrengo bilkuran bozkatuko dute.

ASIERIMAZ

Zizurkilgo eta Tolosako ezker abertzaleak *Euskal Herrian Demokrazia Zero!* goiburupean mozioak aurkeztu ditu udal osoko bilkuretan «eztabaida eta onar daitezkeen». Tolosaren kasuan, herenegun egin zuten udalbatza osoaren bilkura eta mozioa atzera bota zuten EAJ, EA, PSE-EE, PP eta EB-Aralar alderdiko hautetsien bozkek. Zizurkilgen hurrengo bilkuran eztabaidatuko dute.

Mozioaren nondik norakoak

Ezker abertzalearen mozioak udalbatzari bost puntu bere egitea eskatzen dio. Lehen puntuaren arabera, Udalak «herritar oro eskubide zibil eta politikoz guztien



Herenegun Tolosan egin zen udalbatza osoko bilkuran, ezker abertzalearen jarraitzaileak. NOTICIAS DE GIPUZKOA

subjektu dela» aldarrikatu behar du. Bigarren puntuak dionez, «herriak aukeraturiko ordezkariak legez kanporatuak izatea» ez du Udalak onartu behar, «hortaz, EAE-ANVren zinegotziak eragile eta mintzakide politiko gisa onartzen ditu». Ino Galparsoro, Arrasa-

teko alkatearen, eta beste alkate zein zinegotzien aurkako «jazarpen judiziala-zitazioak» salatzea eskatzen du.

Laugarren puntuak «2007ko maiatzaren 27an, lege harrotz eta neurri errepresiboen gainetik, herriak aukeraturiko ordezkari guz-

tien aitortza exijitzen du». Azken puntuan «Udalak 5/1985 LOREG-aren 182. artikuluan jasotzen den formula aplikatuko duela» aipatzen du. Puntu honetan Tolosan, Joxe Agustin Arrieta, Jose Luis Vilanova eta Jose Miguel Gomezen dimisioa eskatzen da, eta Iñaki Ira-

zabalbeitiaren uko egitea galdegiten du. Zizurkilgen berriz, bosgarren puntuaren amaieran, mozioak Aitor Lopez, Gurutze Resa, Ana Olaziregi, Francisco Alonso eta Raul Vazquezzen dimisioak eskatzen ditu.

«Nahikoa esateko garaia da»

Zizurkilgen prentsaurrekoa deitu zuten mozioa Udalean aurkeztu dutela azaltzeko. Horretaz gain ezker abertzaleko kideek «urte zaila izan dela» esan zuten; «hauteskundetan argi eta garbi lehen indarra izan ginen, baina EAJk eta EAK ez dute gure zinegotziak aitorzeko pausurik eman, hasieratik Udaletik kanpo utzi gintuzten. Hala ere, Zizurkilgen alde lan egiteko borondate irmoa genuenez, hauteskunde biharamunean bertan elkarlana eskaini genion udal gobernuari. Trukean jasan duguna: trabak, gezurrak eta irainak. Nahikoa da esateko garaia da».

Tolosan mozioari ez

Tolosan berriz herenegun eztabaidatu zuten Udalbatzaren osoko bilkuran ezker abertzalearen mozioa. Bertan EAJ-PNVren, EArene, PSE-EEren, PPrene eta EB-Aralarren zinegotziek mozioaren aurka bozkatu zuten.



Epaitegira joan eta epaiketarik ez

TOLOSA » Ordizian AHTren obretara martxa egin zuten maiatzaren 25ean. Bertan Ertzaintzak gazte bat atxilotu zuen «autoritatearen aurkako atentatu» leporatuta AHT Gelditu! Elkarlanak esan zuenez. AHTren aurkako taldearen arabera Tolosan epaiketa azkarra egin behar zioten atzo gazteari. 11:00etan 20 lagun inguru epaitegiaren kanpoan elkartu ziren AHT

da delitua ipintzen zuten pankarta batekin. Epaiketa ordeza ez zen egin. Elkarlaneko kideek azaldu zuten, «Ertzaintzak zitazioa berandu eman zioten gazteari eta epaiketa azkarra iragan astean izan zen. Gaztea hemen izan da goizean abokatuarekin eta hori esan diote. Orain, hurrengo astean edo, Durangon prozesu luzeago bati hasiera emango diote». ASIERIMAZ

Ina Zeberio hil zutela 10 urte beteko dira gaur

Lizartza » Herritarrek gaur, etzi eta igandean Zeberio etakidearen omenezko ekitaldiak antolatatu dituzte herrian eta Gernikan.

A. IMAZ

Ina Zeberio etakidea 1998. urteko ekainaren 5ean hil zuen Ertzaintzak Gernikan (Bizkaia). Lizartzarri X. urteurrenean omenaldia egingo diote herrikideek, bere omenez antolatutako ekitaldietan. Gaur, etzi eta igandean Ina Zeberioaren omenezko hamaika ekitaldi egingo dira beraz Lizartza eta Gernikan. Izan ere, «erail zuten lekuan omenaldia egingo zaio etzi 13:00etan».

» EGITARAUA

Ekainak 5, gaur

■ **20:00etan.** Hitzaldia. Gaia: *Errepresioa*. Ondoren bideo emanaldia.

Ekainak 7, etzi

■ **13:00etan.** Gernikan omenaldia eraildako tokian, txalapartari, bertsolari eta hizlariekin.

Ekainak 8, igandea

■ **9:00etan.** Mendi martxa Axurdiora.

■ **13:00etan.** Ekitaldia monolitoaren aurrean, txalapartari, bertsolari, dantzari, abeslari eta abarrekin.

■ **14:30etan.** Bazkaria Elkartean. Txartelak tabernetan aurkitzen dira salgai.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Ikasleek instrumentu ugari jo zituzten, txirula nagusi izan zen arren. N. GARZIA



Abesti batetik bestera abesleak aldatu egin zituzten. N. GARZIA



Ikasleek dantza bat baino gehiago dantzatu zituzten. N. GARZIA



Ikasleak txirula jotzen, atzeak irakasleak eta dantzariak dituztela. N. GARZIA

Musikaren eta dantzaren festa

Leitza » Nafarroa Iparraldeko hainbat institutueta ikasleek kontzertua eskaini zuten atzo Amazabal pilotalekuan.

NAIARA GARZIA

Nafarroa Iparraldeko institutuen festa eguna izan zen atzo Leitza. Kontzertua 17:00etan hasi zen arren, goizetik hasita herria Nafarroako hainbat herritako ikasle bete zen, entseatzera etorri baitziren.

Lekarotz, Doneztebe, Altsasu, Leitza eta Berako institutueta 690 ikasle inguru bildu ziren ikasleen X. kontzertua eskaintzeko, eta tartean ziren, hainbat herri txikitako ikasleak ere, Almandotz, Arraiotz etabarrekoak. Goizean elkartu eta entseatzeko aritu ziren eta ondoren bazkaltzera joan ziren.

Bazkaria norberak nahi bezala antolatu zuen, eta batzuek etxetik ekarri eta plazan jan zuten, edo he-

rriko beste txokoren batean eta beste zenbait, aldiz, herriko tabernetan ibili ziren.

Kontzertua azkenean garaiz hasi zen, 17:00etarako *Buhamiak*

abestia jotzen ari baitziren jende lepo zegoen pilotalekuan. Jende ugari hurbildu zen ikasleak entzutea, baina frontoiaren behealdean ere erabat beteta zegoen. Ikasle gehienek txirula jo zuten arren, beste hainbat instrumentu ikusi ahal izan ziren eta orkestra zuzendari lanak txandaka egin zituzten.

Ikasleen kontzertua urterot antolatzen dute herri ezberdinetan,

eta aurten X. urteurrena izan denez, batxillergoko lehen mailako ikasleek objektu eta eskulan ezberdinekin osatutako 10 zenbakia erakusketa ere jarri zuten pilotalekuan.

Kontzertua 17:00etan hasi eta 19:00 aldera amaitu zen eta abesti zituzten kantetan gaur egungo

abestiak izan ziren nagusi, nahiz eta musika klasikoko piezaren bat jo zuten (*Carmina Burana*), Ramones taldearen abesti pare bat, Hertzainak taldearen *Aitormena*, edo Antonio Aguilar abesle mexikarraren *Caballo Prieto Azabache* abestia ere. Hain zuzen, azken honen amaitu zen kontzertua.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar du. 685 22 70 58.

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. 685 72 20 47 eta 635 71 24 41.

■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna behar du etxeko lanak

egin eta 2 ume zaintzeko. Interesatuek deitu ondorengo zenbakira: 635 045798.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai. Tolosalako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. 657 23 0011 eta 634 91 94 82.

Bai Euskarari Ziurtagiria
gu ziur gaude

zurtagiararen ikaria

1.500 eritatela baino gehiago



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** Kontu-Kantoi taldeak *Esaldi bat, esaldi bi...* kontu-kontari antzezlan aurreratu du Amaroz auzoan 18:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, Ridley Scotten *Blade Runner* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Ingurumenaren Nazioarteko Eguna: 10:00etan Emausen EkoCenterrera bisita, 12:00etan plaza Zaharrean manifestuaren irakurketa, 18:00etan Haur Liburutegian zientzi zirkuituak.
■ **Tolosa.** 20. urte eta gero *Groenlandia* bideo emanaldia eta mahai-ingurua Kultur Etxean 20:00etan Josu Iztueta, Txiki Plazas, Nekane Urkia, Anjel Ortiz eta Aitor Eizolaen kazetariaren partaidetza-ekin.
■ **Tolosa.** Tolosa CFn jokatu nahi duten 1993 eta 1994an jaiotakoek ostegunean 17:30ean Usabalen aurkeztu behar dute entrenamendu arroparekin.

Erakusketak

■ **Alegia.** Jubilatuen tabernan Noelia Crujeirasen margolan abstraktoak daude ikusgai.
■ **Tolosa.** Aitzol Udal Euskaltegiaren 25. urteurrena dela eta, ikasle eta ikasle ohien lan erakusketa ikus daiteke bertan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



Intxurreko zerbaki saritua

ALEGIA ■ Intxurre KKE futbol taldeak joan den larunbatean zozketa egin zuen eta zerbaki saritua 9.289 izan da, Jose Manuel Odriozola *Flekirena*, hain zuzen. Hauxe irabazi du: hilaren 14an Donostiako Maria Cristina hotelean 2 lagunentzako afaria, luxuzko logelan lo egiteko aukera eta goizetako gosaria. Hilaren 15ean Donostiako Juanito Kojua jatetxean 2 lagunentzako bazkaria, eta Reala eta Cordobaren arteko futbol partidarako 2 sarrera. Bukatzeko, 300 euro dirutan ere jaso ditu. Irudian, Patxi Renobales Intxurre KKEko ordezkarria, Tolosako Odriozola sariduna eta Xantos Irazustabarrena Intxurreko lurraldeko entrenatzailea. «Intxurren partez, zorionak saridunari!». XIKER RENOBALÉS

A Agurrak



Urte askoan!
Katalina Karrera (Tolosa).
Gaur urteak. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Kepa Junkera

OLAEDERRA
KIROLDEGIAN

KONTZERTUA
VILLABONAN

Ekainak 7
Larunbata
22:30ean



hitza info
elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.

Harpidedunentzat
%25
merkeago

